| **2026ko ekainean Montréalgo (Quebec) Circuit Est dantzagunean dantza garaikideko ikerkuntza/sorkuntza egonaldia** | **Residencia de investigación/creación de danza contemporánea en el centro coreográfico Circuit Est de Montreal (Quebec) en junio de 2026** |
|---|---|
| ***Etxepare Euskal Institutuak*** eta Quebeceko ***Conseil des Arts et des Lettresek*** (CALQ), ***Dantzerti*** Euskadiko arte eszenikoen goi eskolarekin batera, Montreal hirian dantza ikerkuntza eta sorkuntza egonaldirako deialdia egiten dute. Egonaldia ***Circuit Est*** Montrealeko dantzagune edo zentru koreografikoarekin lankidetzan burutuko da. Egitasmo hau Quebec-Pays Basque lankidetza programaren baitan abiatu zen 2020an, eta gaur egun *"Ça Colle au Basque"* Euskal Herriko eta frankofonia osoko kultur eragile, sortzaile eta kulturgileen arteko hartu-emana eta elkarlana sustatzea eta euskal kultura ezagutzea helburu duen egitasmoaren baitan kokatzen da.<br><br>Bi lurraldeetako erakundeen elkarlanaren barruan, Dantzertik Quebeceko koreografo bat hartuko du, eta ikerkuntza/sorkuntza koreografiko egonaldi bat burutuko du Dantzertiren Bilboko instalazioetan dagoen bitartean.<br><br>Egonaldi-programa honek ondorengo helburuak ditu:<br>• Artistak babestea eta sustatzea, sorkuntzarako ingurune egokia eta lanak ekoizteko eta zabaltzeko bitartekoak jarrita.<br>• Kultur ingurune berri eta bizigarri baten bidez, koreografoen berritze artistikoa sustatzea.<br>• Artisten arteko ikuspegien elkartrukea sortzea, eta lotura iraunkorrak sortzen laguntzea. | ***Etxepare Euskal Institutua*** y el ***Conseil des Arts et Lettres de Quebec*** (CALQ), junto con la escuela superior de artes escénicas del País Vasco, ***Dantzerti***, lanzan una convocatoria para una residencia de investigación/creación coreográfica en la ciudad de Montreal (Quebec). La iniciativa se realicará en colaboración con el centro coreográfico ***Circuit Est*** de Montreal. Esta iniciativa se puso en marcha en el marco del programa de colaboración Quebec-Pays Basque en 2020, y hoy en día se sitúa dentro del proyecto *Ça Colle au Basque*, cuyo objetivo es promover la cooperación entre agentes culturales, artistas, e creadores culturales de Euskadi y los territorios francófonos.<br><br>Dentro del trabajo conjunto de las instituciones de ambos territorios, Dantzerti acogerá a un coreógrafo/a de Quebec, que realizará una residencia de investigación coreográfica durante su estancia en las instalaciones de Dantzerti, Bilbao.<br><br>Este programa de residencias tiene los siguientes objetivos:<br>• Apoyar y promover a los y las artistas coreográficos, facilitándoles un entorno creativo adecuado y medios para la producción y difusión de sus obras.<br>• Promover la renovación artística de los/las coreógrafos/as a través de un nuevo y atractivo entorno cultural.<br>• Favorecer el intercambio de visiones entre artistas y la creación de vínculos permanentes. |

- Euskal Herriko artisten lana eta ibilbidea nazioartean sustatzea.
- Ikerketa, sorkuntza, ekoizpen eta hedapen artistikorako sare berriak garatzea.

**1. Deialdiaren helburuak**

Deialdi honen xedea da dantzari-koreografo bat hautatzea, **2026an egoitza artistikoa Montrealen (Quebec)** egin dezan.

**2. Egonaldi artistikoaren ezaugarriak eta datak:**

- Lantokia: Circuit Est, Montreal
- Datak: Datak: 2026ko maiatza amaieratik 2026ko uztaila hasierara, 6-8 astez (hautatutako pertsonarekin zehaztuko dira datak)
- CALQ eta Circuit Est-ek dantzari-koreografoarekin kudeatuko dituzte ikerketa egonaldiaren egutegia, ordutegiak, eta programa.

- Hautatutako koreografoak Festival Transameriques jaialdiko jarduera eta topaketa profesionaletan parte hartzeko aukera izango du Maiatzaren 28tik ekainaren 10era.

**3.- Diru-sariak:**

- Etxepare Institutuak 4.000 euroko (+- 6.000 $CA) diru-laguntza emango dio hautatutako pertsonari. Zenbateko horretan sartzen dira Quebec-era joateko bidaia gastuak eta dagokion asegurua.
- Quebeceko Conseil des Arts et Lettres (CALQ) arduratuko da hautatutako

- Promocionar internacionalmente la labor y trayectoria de los/as artistas vascos/as.
- Desarrollar y establecer nuevas redes de investigación, creación, producción y difusión artística.

**1.- Objeto de la convocatoria:**

Esta convocatoria tiene como objeto la selección de un coreógrafo/coreógrafa para que realice una **residencia artística en Montreal (Quebec) el 2026.**

**2.- Características y fechas de la residencia artística:**

- Lugar de trabajo: Circuit Est, Montreal
- Fechas: finales de mayo a comienzos de julio de 2026, 6-8 semanas (las fechas se concretarán de común acuerdo con la persona seleccionada)
- El CALQ y Circuit Est gestionarán con el/la artista, el calendario y los horarios de la residencia de investigación y el programa de la misma.

- La persona seleccionada participará en las actividades profesionales y encuentros organizados en el Festival Transameriques, del 28 de Mayo al 10 de junio.

**3.- Dotación económica:**

- El Instituto Etxepare concederá a la persona seleccionada una ayuda económica de 4.000€ (+-6.000 $CA). En este importe se incluyen los gastos de viaje a Quebec y el seguro correspondiente.
- El Conseil des Arts et Lettres de Quebec (CALQ) se hará cargo de la estancia de

| | |
|---|---|
| pertsonari ostatua jartzeaz, egoitzak dirauen bitartean. Horrez gain, ekaina hasieran Festival Transameriques-en baitako jarduera profesionaletan parte hartzearen kudeaketa eta gastuak bere gain hartuko ditu.<br>● Circuit Est dantzaguneak euskal koreografoaren esku jarriko du lanerako estudio bat, eta lekuko dantza sorkuntza eta ikerkuntza testuinguru profesionalean txertatzen lagunduko dio egonaldian zehar. Gainera, 1.000 $CA diru-poltsa bat emango dio euskal koreografoari (CALQen bidez), ikerketa egonaldiak dakartzan aseguru, dieta, barne bidaia, eta ordainsari gastuetan laguntzeko.<br><br>**4.- Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:**<br><br>● Dantzertin graduatutako dantza koreografoak aurkeztu ahalko dira egonaldi honen deialdira, 35 urtez azpikoak (hau barne).<br>● Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea. Salbuespen gisa, zabaldu nahi den lanaren edo lanaren komunikazio-hizkuntza euskara denean, errolda edo helbide soziala euskararen eremu geografikoan duten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak ere aurkeztu ahal izango dira.<br><br>**5.- Eskaerak egiteko modua eta epea:**<br><br>Eskaerak 2026ko **martxoaren 27ko 15:00ak** baino lehen bidali behar dira zuzendaritza@dantzerti.eus helbide elektronikora, honako informazio honekin, PDF formatuan eta euskaraz/gaztelaniaz eta frantsesez/ingelesez: | la persona elegida durante el tiempo que dure la residencia. A su vez, asumirá la gestión y gastos relacionados con la participación del coreógrafo vasco en las actividades profesionales del Festival Transameriques a comienzos de junio.<br><br>● El centro coreográfico Circuit Est ofrecerá un estudio de trabajo al coreógrafo vasco, al cual también facilitará la integración en el contexto artístico y profesional del lugar durante la residencia. A su vez, ofrecerá, (a través del CALQ), al coreógrafo vasco una bolsa de 1.000$CA para su estancia, como ayuda para los gastos de seguros, viajes internos, dietas, y honorarios de su residencia.<br><br>**4.- Requisitos de las personas solicitantes:**<br><br>● Podrán solicitar esta residencia, los coreógrafos/coreógrafas de danza graduados en Dantzerti, menores de 35 años (incluido).<br>● Estar empadronado/a en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Excepcionalmente, cuando el idioma comunicativo de la obra o trabajo que se pretende difundir sea el euskera, también podrán presentarse las personas físicas o jurídicas privadas que tengan su censo o domicilio social en el ámbito geográfico del euskera.<br><br>**5.- Modo y plazo para realizar las solicitudes:**<br><br>Las solicitudes se enviarán a la dirección de correo electrónico zuzendaritza@dantzerti.eus , antes de las **15:00 del 27 de marzo de 2026**, con la siguiente información, incluida en un único documento, en formato PDF, escrito en euskara/castellano y francés/inglés: |

- Curriculum vitaea eta argazkia.
- Ikerkuntza egonaldian burutu nahi den proiektuaren azalpen laburra, helburuak, lan metodologia eta kronograma barne.
- Motibazio-gutuna.
- Lehenago egindako lan koreografikoak erakusten dituzten ikus-entzunezkoetarako estekak.
- Erreferentzia-gutunak (aukerakoa).

**6.- Hautatzeko irizpideak:**

Hautapen batzorde batek baloratuko ditu eskaerak, honako irizpide hauen arabera:

- Proposamenaren kalitate artistikoa.
- Eskatzailearen CV eta ibilbidea.
- Proiektuaren helburuen eta egoitza-programaren helburuen arteko kohesioa.
- Nazioarteko testuinguru batean lan egiteko gaitasuna.

**7.- Deialdiaren ebazpena bazkideen webguneetan argitaratuko da 2026ko martxoaren amaieran.**

- Etxepare Institutua
- Dantzerti
- Circuit Est, Centre Coreographique de Montreal
- CALQ, Conseil des arts et lettres de du Quebec

- Curriculum Vitae y fotografía.
- Breve explicación del proyecto que se quiere llevar a cabo en la residencia de investigación, incluyendo: objetivos, metodología de trabajo y cronograma.
- Carta de motivación.
- Enlaces a audiovisuales que muestren trabajos coreográficos realizados anteriormente.
- Cartas de referencia (opcional).

**6.- Criterios de selección:**

Las solicitudes serán valoradas por un comité de selección, en base a los siguientes criterios:

- La calidad artística de la propuesta.
- CV y trayectoria de la persona solicitante.
- La cohesión entre los objetivos del proyecto y los del programa de residencia.
- La capacidad para trabajar en un contexto internacional.

**7.- La resolución de la convocatoria se hará pública en los sitios web de los organizadores a finales de marzo del 2026.**

- Etxepare Institutua
- Dantzerti
- Circuit Est, Centre Coreographique de Montreal
- CALQ, Conseil des arts et lettres de du Quebec